

«Gaur egun bakoitza bereari begira bizi da»

Egongelako mahai gainean dauka puzzlea hasita. Bizitzaren parte handiena eman duen Epeleko bere etxe kanpoaldean Antonio bera ageri da puzzleko irudian, irribarrez. Ia-ia osatuta dauka 3.000 piezako puzzlea, ez zaizkio pieza asko falta. Ez omen du puzzlea amaitzeko asmorik, puzzlearekin haserretu egin da. Falta zaizkion piezak baino, gaizki jarrita daudenak dira bere haserrearen arrazoia. Etxekoei esan zien puzzlea desegin egingo zuela, baina ezetz esan zioten, uzteko horrelaxe, akaso etxekoren batek amaitzeko tarte hartuko duela.

Antonio Santa Kruz Ereñotzuko Akola baserrian jaio zen 1924. urtean. Bere begi biziak eta memoria pribilegiadunak mendea ikusi dute pasatzen. Inguratzen gaituen jendartea azken mendean nola eta zenbat aldatu den ikusi duen luxuzko lekukoa da. Eta kontalaria oso fina da Antonio. Horregatik kontatu digu hain dotore bere bizitzaren berri, pieza bat bestearen ondoan, puzzle baten tankeran.

Ehun urtetan nola aldatu den hau dena.

Akolan jaioa naiz ni, hortik Hernanira oinez joaten ginen gu. Automobilik ez zen izaten, bizikletak ere gutxi, kaminoa libre. Enkarguak hartuta etortzen ginen etxera. Ilunabarrean Goizuetako korroea izaten zen eta automobil gutxi batzuk ibiltzen ziren. Horien gainean ibiltzen zen jendea. Guardia zibilak zaldiz ibiltzen ziren kaminoan.

Hori ez da asko aldatu. Orain ere ibiltzen dira guardia zibilak errepideetan.

ANTONIO SANTA KRUZ

MENDE BATEN LEKUKOA

1936ko gerra mendi gainaldetik ikusi zuen, telebistari begira dagoenak nola. Orain telebistan Trump eta Biden agertzen zaizkio eta aztoratu egiten da; «nola utzi horrelako gizonari agintzen?», «zer nezesidade dauka aitona horrek adin horretan agintea hartzeko?». Egungo politikarien argazki zorrotza azkar egiten du 97 urte betetzera doan ereñotzuarrak: «Hobe lukete elkarri laguntzea. Ondokoa ondo baldin badago, zerori hobeto zaude». Bera auzoan, auzolanean, auzogintzan jaio eta hazitakoa da.

Amagoia Mujika Telleria eta Iñaki Sanz-Azkue

Orain ez dute beldurrik ematen guardia zibilek, lehen bai. Gu baserrian bizi ginen garaian sekulako ikara ematen zigun Guardia Zibilak. Herriko guardari ere beldurra genion. Makina bat aldiz ezkutatu izan gara ohearen azpian.

Zeri zenion beldurra?

Gauetz bakarrik ibiltzeari beti beldurra izan diot nik. Ilundu baino lehen etxera joaten nintzen, atea itxi eta burdinari ematen nion. Hala ere, parranda batzuk egiten nituen. Lagun guztiak etxera joaten ziren eta ni, bakar-bakarrik, Latxetik edo Ereñotzutik, Akolaraino. Ez zen argirik izaten bidean. Hamahiru urte nituela atera nintzen etxetik eta hamazazpi urterekin hasi nintzen paper fabrikan lanean.

Hamahiru urterekin nora joan zinen?

Morroi joan nintzen. Lehendabizi abeletxe batera Martutenera. Gaizkitu egin nintzen eta etxeratu egin nintzen. Gero Portura joan nintzen eta han egon nintzen hamasei urtera arte. Hamasei urte nituela etxera etorri nintzen eta mendira joan nintzen arbolak moztera.

Ez zizuten ume izaten utzi denbora askoan.

Ez, gu amarik gabe hazi ginen, gainera. Hiru urte nituela hil zen gure ama. Gogoan daukat amonak katilu batean zerbait eramane zuela iluntzean logelara. Hurrengo egunean gosaritan amonari galdetu nion, ‘ama non da?’. ‘Jaungoikoak zerrura eramane du’, esan zidan amonak eta negarrez hasi zen. Besterik ez naiz gogoratzen, baina hori buruan daukat. Eta amarekin ere gogoratzen naiz, eta beti amarik gabe hazi iza-

naren pena izan dut. Aitarekin eta aitona-amonekin hazi ginen. Amona ama hil eta sei urtera hil zen. Arreba zaharrenak hamabi urte zituen eta nik, bederatzi. Arrebak hartu zuen amonaren lekua, berak jartzen zuen jatekoa, arropa garbitu... eta nik lagundu egiten nion. Gainera, aitona gaixo genuen, ohean. Aitonak bere beharrak gainean egiten zituen eta arrebak eta biok garbitu eta jantzen genuen egunero. Orduan, gainera, ez ziren gaurko erosotasunak izaten. Baserritik 500 bat metrora zegoen Axkaxarren garbitzen genituen oheko arropak.

Haurtzaro gogorra izan zenuen.

Bi urtez ibili nintzen ni eskolan. Komunio handia egin nuen bederatzi urterekin, eta kito. Bi urtetan bukatu nuen nik karrera. Orain urte luzez aritzen zarete ikasi eta ikasi, burua txarra izango duzue (umorez).

Gustatzen zitzaizun eskolara joatea?

Maistra gaiztoa genuen. Zenbat makilakada. Niri behin eman zidan matrailekoa, elizan atzera begira egon nintzelako. Etorri zen eta esan zidan, ‘atzo nora begira egon zinen elizan?’. Zapla eman zidan. Guk garai hartan bagenituen euskaraz liburuak. Euskaraz irakurtzen genuen. Geroztik etorri ziren debekuak.

Umetan dena ez zen txarra izango. Nola dibertitzen zinen?

Etxe ondoan ibiltzen ginen jolasean. Teilekin egiten genituen txabolak eta behiak, eta horiekin aritzen ginen jolasean lurrean. Guk egiten genituen jostailuak.

Pentsa. Eta oraingo umeek zenbat jostailu...


Oraingoa gehiegizkoa da. Dena nahi dute eta eman egiten zaie. Gu beste tankera batean bizi ginen, gutxiagorekin konformatzen ginen.

Hiru seme-alaba, bost biloba eta zortzi birbiloba dituzu. Esango balizute zure ondorengoek zuk izandako haurtzaroa eta gaztaroa izan beharko luketela, zer pentsatuko zenuke?

Ez diet desio. Guk lana eta lana, ez dugu besterik izan. Jaie-tan ere, fabrika jai genuenean, mendira joaten ginen lanera. Guk hori ezagutu dugu, bazkaria kapazuan hartu eta mendira lanera. Eltzean potajea hartzen genuen, pitarra botilan eta eguna pasatzen genuen lanean. Ilunabarrean, etxera. Horiek ziren gure jaiak. Goizean mezetara joaten ginen. Alpargata zaharrak jantzi, mezetan sartu baino lehen beste oinetako txukunagoak aldatu, elizatik atera eta atzera alpagata zaharrak jantzi eta lanera. Ni Ereñotzutik Akolara hanka hutsik joana nago zapatak ez hondatzeagatik. Zapatak eskuan hartu eta hanka hutsik.

Gerra garaia non bizi izan zenuen?

Akolan. Minetatik ikusten genuen guk kanoiak noiz egiten zuen tiroa eta non lehertzen zen. Oiartzungo Gurutze aldean makina bat kanoikada hartutakoak dira. Mendiaren gainaldetik ikusten genuen dena. Hegazkinak pasatzen zirenean iniztor tartean ezkututzen ginen. Kontxara iristen ziren gerraontziak ere ikusten genituen Sagastietako lepotik. Kanoiak noiz botatzen zituzten eta non erortzen ziren ikusten genuen. Sagastietako lepotik



Jon URBE | FOKU

Donostiako badia, Oiartzun, Jaizkibel, San Marko, Urnieta... denak ikusten dira. Anaia eta biok handik begira egoten ginen. 'Cervera' izeneko gerraontzi handia etortzen zenean, gelditu gabe aritzen zen kanoiak botatzen, aurretik eta atzetik. Horietako bat Artzain Onaren atzealdean lehertu zen. Hernanin ere Banco Guipuzcoko inguruan sartu zuen kanoi bat. Guk horiek denak ikusten genituen menditik.

Eta baserrira, etxe ingurura, ez al ziren gerturatu?

Bai. Egun batean Ereñotzura joan nintzen astoarekin esnea partitzera. Buelakoan Arretxietan barrena denean soldaduak zeudela ikusi nuen. Nik haiek baino lehenago iritsi nahi nuen etxera. Hamahiru urte nituen eta bidean gelditu ninduten. Erreketeak ziren, baina nik ez nekien zer ziren. Galderak egiten zizkidaten eta nik, ikaratuta, negar egiten nuen. Etxera iritsi nintzenean osaba zegoen bertan eta kontatu nion gertatutakoa. Segituan sukaldean sartu ginen denok. Aita non ote zen, eta aita patatak

biltzen ari zela. Aitaren bila joan nintzen, erreketek ematen zutela eta baserrira zetozela esanez. Baserrira iritsi zirenean txapel gorriak jantzi zituzten, gainontzean kalekoz jantzita zeuden eta ezin bereiztu. Baserrian esnea genuen, hori egosi eta dena hartu zuten. Gero, mendian gora igo eta lubakiak egiten aritu ziren. Horiek izan ziren gero Santiagomendi hartzera joan zirenak.

Gero, erreketek joan eta soldaduak etorri ziren. Horiek gaiztoak ziren. Horiek ikara handia ematen zuten. Milita-

rrak ziren. Goseak egongo ziren eta ardiak lapurtzen zituzten. Guk etxetik ikusten genuen zeinen aziendak ari ziren lapurtzen. Gero, gure baserrira etorri, ardiei lepoa moztu eta burua guri botatzen ziguten, guk jateko esanez. Bazetozela ikusi genuenean aitona jantzi eta saiatu ginen etxetik ateratzen. Gaixo zegoen aitona eta anaia Alkatxuinen bizi zuen. Harengana eraman nahi genuen, baina segituan etorri ziren soldaduak, etxera bueltatzeko aginduz. Akordatzen naiz gure aitak ukuiluan babesleku bat egin zuela, kupel zahar batekin eta ohol batzuekin. Hegazkinen batek bonbaren bat jaurtiz gero, han babesteko. Aterpe bat egin zuen aitak ukuiluan.

Paper fabrika hasi zinen hamazazpi urte zenituela. Aukerari, baserriko lanak edo fabrikakoak nahiago?

Paper fabrika hobe, beste segurtasun bat, diferentea da. Baserrian beti lanean aritu behar duzu. Hala ere, paper fabrikatik atera eta baserrian aritzen ginen lanean e! Baina paper fabrikako soldata genuen. Hilabeteen 10 pezeta irabazten nituen. Zazpi urtean aritu nintzen bertan lanean. Soldaduskara ere handik joan nintzen. Gero Electroquimicara joan nintzen lanera. Lantegia eraikitzeke lanak egin genituen eta enpresa muntatu genuen. Behin muntatuta, nagusiak esan zidan han lan egiteko behar ninduela eta paper fabrika uzteko, lanpostu ona izango nuela Electroquimican. Ez nintzen ausartzen, baina azkenean paper fabrika utzi nuen eta Electroquimicara etorri nintzen. Hogeita hamasei urte pasatu ditut bertan lanean. Muntatu genuen, mar-

«Bi urtez ibili
nintzen ni eskolan.
Bi urtetan bukatu
nuen karrera. Orain
urte luzez aritzen
zarete ikasi eta
ikasi, burua txarra
izango duzue»



txan jarri genuen eta bertan
egin genuen lan. Orain beteko
dira 72 urte martxan jarri zela.

Oso arriskutsua omen da.

Bai, hala esaten dute. Nik hor
pasatu ditut hogeita hamasei
urte. Merkurioa eta amianto
txarrak omen dira, guk horiek
ibili genituen lanean. Askok ez
gara, baina oraindik bagara bi-
zi garenak.

**Sagardotegi garaian gaude.
Horien martxa ere aldrebestu
du pandemiak. Zuk ezagutu
zenituen garai bateko sagar-
dotegiak. Hernaniko kaxkua
sagardotegiz beteta omen ze-
goen.**

Bai, ezagutu dut nik hori. Ma-
hai txiki bat, balde batean ura
eta basoka saltzen zuten sagar-
doa. Hernaniko kalean bertan
izaten ziren sagardotegiak. Ba-
soa uretan garbitu, sagardoz
bete eta kito. Hamar zentimo
ordaintzen genuen baso bat
sagardo.



Alboan, Antonio Santa Kruz
emaztearekin eta seme-
alabekin. Beheko partean,
lagun kuadrillarekin
gaztetan. SANTA KRUZ SENDIA

bizpahiru egunean igual. Eta
amonak arropa garbiak era-
maten zizkion, parrandan segi
zezan. Txirrita ere horrelaxe
ibiltzen omen zen, baina hari
inork ez zizkion arropa gar-
biak eramango...

**Gaur egun ez zen emakume
asko joango parrandan dago-
en senarrari arropa garbiak
eramatera...**

Gauzak asko aldatu dira. Le-
hen baserria emakumeak era-
maten zuen, etxeko lanak eta
baserrikoak berak egiten zi-
tuen, eta isil-isilik. Lehen gu-
txiegi eta orain gehiegi.

**Antonio, 97 urte beteko ditu-
zu aurten, ia ehun urte. In-
presioa egiten al dizu horrek?**

Zer esango dizut ba nik? Ez dut
asko pentsatzen horren ingur-
uan. Gaztea nintzela, 26 urte-
rekin, oso gaizki egon nintzen,
hiltzorian. Hamabost egun pa-
satu nituen ohean. Jaikitzen
hasi nintzenean medikuak
errieta egin zidan, hoztu eta
berriz gaixotuko nintzela esa-
nez. Eta horrela pasatu zen.
Hurrena pasatu nituen hama-
zazpi egun ohean. Oso gaixo
nengoen eta medikua ikaratu
egin zen, ez baitzuen suma-
tzen zer pasatzen zitzaidan.
Beste mediku bati deitzea ea
zer iruditzen zitzaigun esan zi-
gun. Astigarragako Almandoz,
famatua zen, eta hura ekarri
zuen. 500 pezeta kobratu ziz-
kigun. Eta hura ekarri zuelako
familia medikuak 200 pezeta
kobratu zizkigun. Nik diru ho-
ri kobratuko zutela jakinez ge-
ro, ez ziren etxean sartuko.
Pentsa, nik hilabeteen 19 peze-
ta irabazten nituen eta medi-
kuek 700 pezeta kobratu. Sen-
datu nintzen, baina nik diru
hori kenduko zidatela jakinez
gero, kanposantuan egongo
nintzen aspaldi.

Zoriontsua izan al zara?

Bai, ni bai. Gauza ona izan dut
nik: beti lana izan dut. Fabrika-
tik atera eta mendian ibiltzen
ginen gu, orduak sartzen diru
gehiago irabazteko. Fabrikan
gaueko txanda egin eta gero
goizean koinatuak esnatzen
ninduen, mendira lanera joa-
teko. Gero baratze bat ere izan
dut eta han ere lanean beti.

Sekulako memoria daukazu.

Buru ona daukat, bai. Orain
dela gutxi arte puzzleak egiten
aritu naiz. Hor daukat azkena
hasia eta hori ez dut bukatuko,
3.000 piezakoa da. Hau berriz
(paretan daukan puzzlea sei-
nalatuz) 8.000 piezakoa da eta
beste hura (beste bat seinala-
tuz) 10.000 piezakoa.

**Zergatik ez duzu bukatuko az-
kena hasita duzun puzzlea?**

Ez daukat indarririk. Desmunta-
tzen hasi nahi nuen eta alabak
esan zidan uzteko, ilobaren
batek bukatuko zuela. Hase-
rretu egin nintzen puzzleare-
kin eta nire buruarekin, aurre-
an neukan eta ezin bukatu.
Hutsune gutxi daude, baina
gaizki jarritako piezak bilatu
behar dira eta hori da arazoa.

**Gaur egungo pandemia gerra
modernoa omen da.**

Hau txarragoa dela uste dut.
Musukoarekin ibiltzeko esaten
digute eta asko ahal den gu-
txiena ibiltzen dira. Guk hori
egin behar dugu eta ez da gau-
za hain zaila. Gaur egun bakoi-
tza bereari begira bizi da. Ondo-
an bizi direnak ere elkarri kasu
egin gabe pasatzen dira bata
bestearen ondotik egunero.

**Lehen auzokoen artean lotu-
ra handiagoa zegoen.**

Bai. Auzoan haur bat jaiotzen
zenean, inguruko denak bisi-
tan joaten ginen, hau edo bes-



**Oraingo sagardotegiak gusta-
tzen al zaizkizu?**

Ez zaizkit gustatzen, jendeak
gehiegi edaten du. Eta gainera
zutik jaten da. Niri lasai eseri-
ta jatea gustatzen zait.

**Aurten eserita eta sagardoa
pitzarran izango omen da.**

Hori tontakeria bat da. Pixka
bat muturra berotzen denean,
alferrik dira arauak. Ez orain
eta ez lehen.

**Txirrita ere ibiltzen omen
zen sagardotegian.**

Ikusita nago ni Txirrita Ereño-
tzun bertsotan. Txokolateneko
leihoan, elizaren parean.
Leihoa bete-bete eginda. Umea
nintzen ni, baina gogoratzen
naiz, San Antonio eguna zen.
Fama handia zeukan Txirritak,
bertsolari onena zen. Parran-
dan ere ibiltzen zen. Gure aito-
na ere ibiltzen omen zen pa-
rrandan Txirritaren antzera,



Jon URBE | FOKU

«Duela denbora bat zorabiatu eta erori egin nintzen sukaldean, konturik gabe geratu nintzen. Gero kontua etorri zen eta penatan egon nintzen. Hain gozo nengoen ni konturik gabe halako toki batean, esnatu nintzenean pena hartu nuela»



te eramatera. Gero atsolorra egiten zen eta elkarrekin ospatzen genituen jaiotzak. Norbait hiltzen zenean, inguruko etxeetakoek kandela bat eta dirua eramaten zuten hildakoren etxera. Pentsa ezazu, bederatzi urte baino gutxiago nituela gure amonak Akolatik beheko Larre Gainera bidali ninduen kandelarekin, hango amona hil zelako. Nik begietan daukat hildako amona hura; beltzez jantzia, kolore zuri-zuriarekin, sudur luze-luzearekin, ohean etzanda eta denak inguruan.

Heriotza bizitzaren parte zela oso presente zenuten umetatik.

Bai, guk normal bizi izan dugu. Gure amona hiltzera zihoala eta makal zegoen, oso makal. Ez zuen komunioa hartu eta apaiza han egon zen zain, ea pixka bat bizkortzen zen komunioa hartu ahal izateko. Ez

zen bizkortu eta komunioa hartu gabe hil zen. Ni Ereñotzura etorri nintzen apaizari laguntzera, kandela piztuta. Bederatzi urte nituen.

Gaur egun beldurra al diogu hiltzeari?

Hiltzeari beti beldurra.

Eta 97 urterekin?

Gutxiago.

Aurrekoan esan zenigun mar-txa egiteko prestatzen ari zarela.

Bai, hori natural-natural bizi dut nik. Duela denbora bat zorabiatu eta erori egin nintzen sukaldean, konturik gabe geratu nintzen. Gero kontua etorri zen eta penatan egon nintzen. Hain gozo nengoen ni konturik gabe halako toki batean, esnatu nintzenean pena hartu nuela. Lagun batek esan zidan berari igual-iguala pasatu zitzaiola.

Duela bost bat urte pagoa landatu genuen eta zuk esan zenuen pagoaren itzala ez zenuela ezagutuko. Pagoak sekulako indarra dauka, haren itzala ezagutu duzu zuk azkenean.

Bai, haren azpian ez ordea.

Lasai zaude Antonio.

Bai, beste aldetik noiz deituko zain nago. Adin hau gutxik harrrapatzen dute eta ondo nago. Ondo bukatu nahi dut, beste-rik ez.

Eta nora zoaz?

Beste mundura. Inork ez daki nolakoa den, handik ez du inork abisatzeko. Ona izatea nahi nuke.

Zerbait egin ez izanaren pena geratzen al zaizu?

Gehiago ikasi ez izanaren pena daukat. Fabrikan arduraduna nintzen eta askotan gaizki pasatzen nuen, erdaraz ez nekierako.

Erdaraz ez jakin izanak arazoak sortu dizkit. Lanerako behar nuen nik erdara.

Eskolatik geratu nintzenean aitzak hitzeman zidan bizikleta ekarriko zidala. Eskolarik gabe eta bizikletarik gabe geratu nintzen. Hamasei urte nituela basoan lanean aritu nintzen osabarekin. Aitari esan nion ez niola ordaindu zidaten dirurik emango, bizikleta ekartzeko, agindu zidan bezala. Bizikleta ekarri zidanean hori ilusioa. Guk umetan ez genuen oparirik izaten. Amonak tarteka ekartzen zizkigun txokolate batzuk.

Geroztik ikasi al duzu?

Gutxi. Leitzeko denbora askorik ere ez dut izan, beti banuen zerbait egiteko. Etxean zerbait konpondu beharra bazegoen, neronek egiten nuen.

Duela hamabost urte alargundu zinen. Etxeko lanetan

ere moldatzen zara, umetan derrigorrez ikasitakoak balioko ote zizun...

Bai, ni beti moldatu naiz etxeko lanetan eta kozinatzen. Auzoko bat alargun geratu zen eta horrelaxe esan zidan; 'hi ondo hago, hik badakik kozinatzen eta... nik ez zekiat ezer egiten'. Eta esan nion 'ikas ezak orain', bazuen garaia. Preokupatuta zegoen, andrea falta zuela eta ez zekiela ezer egiten. Beharrak erakusten du, bai. Gazte batek belar sorta galanta jaso behar zuela eta laguntza behar zuela. Aitari esan zion eta aitak erantzun, 'beharrari deitu iezaioke eta etorriko zaik'. Joan omen zen eta sekulako belar sorta. Azkenerako jaso omen zenuen. Bueltakoan aitari esan zion 'bai, esan didazu beharra etorriko zela baina ez da inor etorri'. Eta, aitak, 'eta nola jaso duk ba?'. Eta, semeak, 'neronek'. 'Horixe da beharra', aitaren erantzuna.